

“Roaming-a”: muga bat etorkizunarentzat

‘Roaming’ edo ibiltzaritza-tarifak eragozpen bihurtzen dira azken belaunaldiko mugikorrei etekin guzti-guztia ateratzeko

Nor bere herrialdean Internetera konektatu eta megabyte bat deskargatzea 0,05 euro kostatzen da. Erabiltzailea beste herrialde batean badago, eta mugikorra ez bada han bertakoa, askoz garestiago ordaindu beharko du megabyte bakoitza: 2,6 euro ere bai zenbaitetan. Atzerrian dagoen norbaitek hiru megako argazki bat jaitsi nahi badu, ia zortzi euro ordaindu beharko ditu, eta hamar argazki deskargatuz gero, ia laurogei euro. Bere herrialdean, ordea, 1,5 euroekin egingo luke hori bera.

Atzerritik egindako deiei eta bidalitako mezuei ere eragiten die garestitze horrek. Europako Batzordeak, baina, esku hartu du deien eta mezuen auzian,

prezioen espekulazioa geldiarazteko helburuz, eta gehieneko tarifa batzuk ezarri dizkie telefonia-operadoreei. Deietan, adibidez, minutu bakoitza gehienez 0,35 euro kostako da, egindako deien bakoitzean, eta jasotako deietan, 0,11 euro. SMS bat bidaltzea, berriz, 0,11 euro kostako da, gehienez ere, eta atzerrian SMS bat jasotzea doakoa izango da.

Europako Batzordearen begiradapean. Uneotan, deiekin eta SMSekin egin bezala, orain datueta-rako sarbidea arautu nahian ari da Europako Batzordea, atzerrian egiteagatik ezartzen diren tarifak gehiegikotzat jotzen dituelako, eta batzordekide diren herrialdeen artean ekonomia bateratuaren kontzeptuak agindu behar duelako, baina tarifa horiekin ez da hala gertatzen. Argudio horiek eman ditu Europako Batzordeko lehendakariorde eta Agenda Digitaleko komisarioak, Neelie Kroes-ek.

Lehendakariordeak azpimarratzen duenez, azken belaunaldiko telefonoen esker, erabiltzaileek gero eta datu gehiago kontsumitzen dituzte eta gero eta maizago sartzen dira Internetera, eta askotan, gainera, zerbitzuen, negozioen edo saltoki jakinen inguruko informazioa eskuratzeko egiten du jendeak, norbera dagoen lekutik hurbil dauden aukeren berri jakiteko; bilaketa

geokokatua esaten zaio horri, eta telefonoaren GPSa eta Sareko datuak konbinatuz egiten da.

Kroes-en iritziz, erabiltzailea atzerrian dagoenean, gauza asko ez ditu ezagutzen, datu-sareetarako sarbidea edukitzea lagungarria gerta dakioko, eta horrexegatik ugaritzen dira hainbeste bilaketa geokokatu horiek. Etxetik kanpo gaudenean, asko eskertzen da non zer aurki dezakegun jakitea: arropa-saltokiak, jatetxeak, ostatuak, museoak, botikak... Hori guztia aukera ona da erabiltzaileentzat, baina baita tokian tokiko negozioentzat ere, bezero berriak erakartzeko bide ematen baitie. Oztopo nagusia, ordea, tarifak dira. Europako Batzordeak berriki argitaratu duen Eurobarometroa 2011n ikusten da hori: han ageri denez, erabiltzaileek askoz behar handiagoa izaten dute mugikorretik Internetera sartzeko, baina atzera eginarazten diete tarifa handiek.

Hori guztia ikusita, ondorio hau atera liteke: roaming-eko tarifa handiek galarazi egiten dute mugikorraren bidezko teknologia digitalaren bilakaera. Ildo horretan, Espainia eta Portugal negoziatzen ari dira urte hasieratik, roaming-ik gabeko gune bateratu bat sortzeko, eta, hartara, mugikorraren erabilera sustatzeko bi herrialdeen artean.

Zergatik ordaintzen dugu hainbeste kanpoan gaudenean? Atzerrira joan eta mugikorretik deitzea edo mugikorretik Internetera sartzeko garestia izaten da, baina zergatik? Mugikor bat bestearekin konektatzeko erabiltzen den protokoloan bilatu behar da horren zergatia. Deiei dagokienez, erabiltzaileak ez du deitzen bere operadorearen bidez, beste baten bidez baizik (operadore anfitrioi esaten zaio). Operadore horrek agindua eman behar du erabiltzailearen operadorea bilatzeko, eta nazioarteko bidetik bidali behar dio deia; hau da, herrialde bat baino gehiago igaro behar ditu, deihartzailearengana iristeko. Hartzailea dagoen

herrialdera iristen denean, erabiltzailearen operadoreak bilatu egin behar izaten du hartzailearen telefonoa, eta biak harremanetan jartzen ditu.

Operadore anfitrioiak diru bat kobratzen dio erabiltzailearen operadoreari, prozesu horretan egiten duen lanagatik. Europak prezioak arautu aurretik, antenak jartzen egindako inbertsioen arabera ezartzen zituen tarifak operadore anfitrioiak, eta, beraz, zerbitzuari erantzuteko zenbat eta inbertsio handiagoak egin izan, orduan eta garestiago kobratzen zuen bere lana. Har dezagun adibidetzat Costa del Sol esaten zaion ingurua. Udan, turista atzerritarrez betetzen da, eta telefonoz hitz egiten dute etxekoekin. Lineek gainezka ez egiteko, Espainian jarduten duten operadoreek antena gehiago jarri behar izan dituzte, eta inbertsio handiak egin. Amortizatu, ordea, udan soilik egiten dituzte.

Ondorioz, Espainiatik beste herrialde batzuetara egiten ziren ibiltzaritza-deiak oso garestiak ziren Europak tarifak arautu zituen arte. Europako Batzordeak ezarri dituen prezioekin, oreka bat bilatu nahahi da operadoreek beren inbertsioak amortizatzeke, baina epe luzeagoan. Interneterako sarbidearekin ere antzera gertatzen da, baina kasu horretan, prozesua ez da joaten nazioarteko telekomunikazio-bideetatik, nahiz eta hor ere operadore anfitrioi baten antenak erabiltzen diren.

“Tarifatzarrah” saihesteko NEURRIAK

- **Erabilera-esparru guztiak arautu artean**, atzerrian mugikorrik ez erabiltzea da onena, batik bat sareko datuetara sartzeko.
- **Deiak egin beharra badago**, gaueko edo asteburuetakako ordu-tarteak erabiltzea komeni da, edo bestela, ostatu edo hotel bateko wifi konexio finkoaz baliatuz, Interneten dauden ahots-programetako bat (voIP) erabil daiteke, Skype adibidez.
- **Nabigatzeko ere erabil daiteke wifi konexioa**, eta, beraz, ostatu hartzerakoan, aukera hori eskaintzen duen edo ez ere kontuan hartu behar da.
- **Badaezpadako neurri gisa, eta fakturak ezusterik ez emateko**, atzerrian gauden bitartean, telefonoan deskonektatu egin daiteke 3G sareak erabiltzeko aukera.

